

JURDANA URIARTE LEJARRAGA andreak, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak,

**ZIURTATU DOT:**

2018ko urtarrilaren 17an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

**9.- 2018-2019 URTEETARAKO GASOLEO C HORNIDURARAKO ESPARRU-  
AKORDIOTIK DATORREN KONTRATAZINOA ESLEITZEA ETA  
FORMALIZATZEA.**

**Planteatutako gaia**

2018-2019 urteetarako Gasoleo C hornidurarako esparru-akordiotik datorren kontratazinoa esleitu eta formalizatzeko proposamena.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: Bermeoko Udala Bizkaiko Foru Aldundiko kontratazino zentral foralera atxikitu zan Udalaren Osoko Bilkuraren 2017-02-03ko 8.erabagiren bitartez.

Bigarrena: Bizkaiko Foru Aldundiko kontratazino zentral foralak bideratutako gasoleo C hornitzeko esparru-akordiora atxikitu zan Bermeoko Udala 2017-07-19ko 975 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez.

Hirugarrena: Bizkaiko Foru Aldundiak Gasoleo C hornitzeko esparru-akordioaren amaiera onartu eban REPSOL COMERCIAL DE PRODUCTOS PETROLIFEROS SA, NIF A-80298839 enpreseagaz, Herri Administrazinorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko 9.266/2017 Foru Aginduaren bitartez. Foru espediente zenbakia: 2017/003/074/07.

Laugarrena: 2017ko abenduaren 15ean Erosketa Saileko administrariak txostena igorri eban.

**Argudioak**

Lehenengoa: Konsignazino nahikoa dago gastu honetarako. RC2017/560.



Bigarrena: Beharrizanen txostena 2017-07-13ko dataz egin zan, espedientean agertu bezala.

Hirugarrena: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen dauen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 198. artikuluan xedatutakoagaz bat etorriz, REPSOL COMERCIAL DE PRODUCTOS PETROLIFEROS SA, IFZ/NIF: A-80298839 enpreseagaz eratorritako kontratua adjudikatuko jako, esparru-akordioaren ondorioetan ezarritako terminoen arabera.

Laugarrena: Esleipendunari jakinarazotea udalagaz izango dauzan ahozko eta idatzizko hartu-emonak euskeraz izango dirala eta fakturarik edo bestelako idazkirik aurkeztu behar dauenean euskeraz aurkeztu beharko dauzala.

Bosgarrena: 2016ko urtarrilaren 25eko 043 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, Tokiko Gobernu Batzarraren eta Ekonomiako zinegotzi delegatuaren artean honela banandu dira eskumenak gastuen faseak onartzeko:

Tokiko Gobernu Batzarrak: AD faseak.

Zinegotzi delegatuek: AD faseak (600,00€ rainoko gastuetan).

Kontu batzordeko zinegotzi delegatua: OP faseak (edozein kopurutan).

## **Erabagia**

Tokiko Gobernu Batzar honck, aho batez, honakoa ERABAGI DAU:

LEHENENGOA: 2018-2019 urteetarako gasoleo C horniduraren kontratazinoa esparru-akordiotik eratorritako kontratua REPSOL COMERCIAL DE PRODUCTOS PETROLIFEROS SA (IFZ A-80298839) enpreseari esleitzea, esparru-akordioaren ondorioetan ezarritako terminoen arabera.

BIGARRENA: Eratorritako kontratu honeri egotz dakioken 14.000,00 euroko gastua baimentzea eta xedatzea REPSOL COMERCIAL DE PRODUCTOS PETROLIFEROS SA, enpresearen alde (IFZ: A-80298839) eta 00300-92920-2210400 partidaren kargura.

HIRUGARRENA: Eratorritako kontratua enpresa adjudikatzailleagaz formalizatzea.



LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikuluaaren arabera), Idurre Bideguren Gabantxo alkate andrearen aginduz eta onetsiaz, Bermeon, 2018ko urtarrilaren 17an.

ONETSIA  
ALKATEA

Idurre Bideguren Gabantxo



IDAZKARIA

Jurdana Uriarte Lejarraga



